

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2012ko otsailaren 21a. IX. urtea. 2.366. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



San Bernardo aisialdi taldeko kideak mexikarrez mozorrotu dira; batzuk emakume eta gizon mexikarrez jantzi dira, beste batzuk mariachiz, eta azkenak, kaktusez. A. IMAZ

## Azken irrintziak botatzeko eguna

Aisialdi taldeen txanda izan da; San Bernardo, Kazkabarra, Txiribitu, Ttenttek, Kirikiño eta Atsedena kideek hartu dituzte kaleak, eta denak jarri dituzte dantzan

Igande goizeko zaparradak direla eta, karroza asko behar bezala ikusteko aukerarik ez zen izan, eskerrak gaur ere kalera aterako direla inauteriak agurtu aurretik **04-5**

**TOLOSALDEKO hitza <sup>info</sup>**  
ETA LEITZALDEKO  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)  
[leitzaldea.hitza.info](http://leitzaldea.hitza.info)

eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



## Vanessa Alzate ◦ Inauterizalea

Astelenita da Alzateri gehien gustatzen zaion eguna. Zaldunitan eta Asteartitan, urtero, lagunekin ateratzen da mozorrotuta, eta Astelenitetan aisialdi taldeak ikustera joaten da.

# «Astelenitak oso egun beteak izaten dira»

### Rebeka Calvo

Vanessa Alzate (Ibarra, 1981) urtero mozorrotzen da. 18 urte bete arte Kazkabarra aisialdi taldearekin ateratzen Astelenitan, eta oraindik ere aisialdi taldeak ikusten dituenean inbidia pixka bat ematen diola aitortzen du.

#### Nola bizitzen dituzu inauterien aurreko egunak?

Urduri egoten naiz. Nahiz eta jakin zertaz aterako naizen azken momentura arte ez dut mozorroa erabat bukatzen, beti uzten dut zerbait bezperarako, eta azkenean urduri egoten naiz.

#### Karroza edo konpartsaren batean ateratzen zara?

Ez. 18 urterarte Kazkabarra aisialdi taldearekin ateratzen nintzen Astelenitan, baina orain ez. Kuadrillakoekin ateratzen naiz

mozorrotuta Zaldunita eta Asteartitan, eta egia esan, aisialdi taldekoak ikusten ditudanean inbidia pixka bat ere ematen dit. Astelenitak oso egun beteak izaten dira.

#### Astelenita da hortaz, gehien gustatzen zaizun eguna?

Asko gustatzen zait astelehena. Nahiz eta ez atera aisialdi taldeekin, oso egun aktiboa dela iruditzen zait, eta oso gustura ikusten ditut aisialdi taldeen dantzak. Igandea ere gustatzen zait, baina ez zait horren aktiboa iruditzen, ikusteko da gehiago. Igandea, hala ere, oso egun zorua da.

#### Eta Asteartita?

Egun tristea da. Goizean ez, goizean egun osoa duzu aurretik eta ahaztu egiten zara, ez zaizu iruditzen inauteriak bukatuko direnik, baina arratsaldeko zortzieta-

### ↓ Tragoxka batean

- **Egunik onena.** Astelenita, zailantza gabe.
- **Inauterietako une bat.** Zezenetatik atera eta txarangaren atzetik saltoka joatea.
- **Abesti bat.** *Isabelita*.
- **Eguna ala gaua.** Eguna, baina arratsalde partean, iluntzean.

rako nostalgia puntua sartzen zaigu beti.

#### Egunero ateratzen zara?

Ostegun Gizenetik hasi eta Asteartita arte ateratzen naiz, egunero, baina ez dut beti parranda egiten.

#### Zertaz mozorrotu zara aurrean?

Igandean Ingalaterrako Ascot zaldi karrerak ikustera joaten diren emakumeetaz atera ginen,



R.C.

pamelak eta guzti, astelehenean sevilanaz atera nintzen, eta gaur, teletienda saltzailez; sabela indartzeko makina saltzen saiatuko naiz.

#### Inauteri hauetan ikusi al duzu antzokia eman dizun mozorrorik?

Orainxe ikusi dudana! Tipo bat prozesioz zihoan, bera ama birjina zen, eta inguruan lepakariak zeramatzan. Asko gustatu zait.

#### Eta ba al duzu mozorro kuttunik?

Kazkabarran atera nintzen lehen urtean pailazoz atera ginen, ez

zen mozorro berezia, baina lehen urtea izateagatik edo, oso oroi-men ona dut.

#### Zer esango zenioke Tolosako inauteriak ezagutzen ez dituen bati? Nola gonbidatuko zenuke?

Egun hauek oso bereziak direla, eta etortzeko ondo pasatzera Tolosara. Mozorrotu eta kalera ateratzeko esango nioke, jaia kalean dagoela, inauteriak jendeak egiten dituela. Inauteriak jai oso bereziak dira, eta merezi du etortzea.



# Munduari norabide feminista jarriko diote

Iaz Asteartitan irekitako bidetara jarraituz, aurten ere Bilgune Feministak konpartsa aterako du

R. Calvo

Bilgune Feministako kideak iaz, emakume guztiei kulero moreak buruan jantzi eta Super Feministaz ateratzeko deia egin zieten. Pasa den urteko Asteartita martxoaren 8an izan zen, eta aldarrikapena jai egun berezi honetan egitea pentsatu zuten. Deialdia ondo atera zen, eta Trianguloan egindako hitzordura emakume ugari gerturatu ziren.

Iazko gaia Ramos Azkarate idazle tolosarraren harira etorri zen. Galtzaundiren bertso-sorten egile bezala da ezaguna Azkarate, eta bertso gintzaz gain antzerkia ere landu zuen, baina bada horren ezaguna ez den Azkarateren bertsoa, eta Berdura plazan dagoena, bertan duen eskulturaren. «Abajo las mujeres, deabruz josiak, aii! Ilda bazeundete, zeraten guztiak, josapatien izango ditugu auziak, han konponduko zaitu, goiko justiziak», dio bertsoak, eta horregatik erabaki zuten Ramos Azkarateren alaba gaiztoz mozo-



Ramos Azkarateren alaba gaiztoz, hau da, Super Feministaz atera ziren iaz Bilgune Feministak. HITZA

rrotzea, eta hortaz, «alaba gaizto izateko feminista izan behar denez», Super Feministaz atera ziren.

Aurtengoan, ordea, Emakumeen Gailurra irudikatuko dute Asteartitan. «Munduaren norabideak zein izan behar duen erabaki-

tzeko elkartzen dira munduko mandatariak G20 edota G8 gailurretan, mandatari gizonezkoak gehienetan. Ikusi besterik ez dago gizonezkoak agindutako mundu hau nola doan... Krisia dago batean eta bestean. Emakumeok gure alternatiba ezartzera

goaz. Eredu hainbatetako emakumeak elkartu eta bizi garen mundu honetarako beste eredu bat proposatuko dugu», azaldu dute Bilgune Feministako kideek. «Beste norabide bat ezarriko diogu mundu aldrebestu honi», gaineratu dute.

Horiek horrela, Asteartitan «elkartasuna eta parekidetasuna bezalako baloreak» zabaltzeko asmoa dutela azaldu dute. «Kolektiboa ezarriko dugu individualismoaren gainetik. Banaketa justua eta elkartrukea defendatuko ditugu oinarri ekonomiko gisa. Egungo munduak gutxietsitako eremu pribatua publikoaren pare jarriko dugu, zaintza eta heziketari duten garrantzia emanez...», azaldu dute.

Aldarrikapena eta jai uztartuko dituzte beste behin ere, Bilgune Feministako kideek, eta emakume guztiei egiten diete dei mozturrotu eta beren eskubideak defendatzera, «beste eredu baten alde egitera», alegia. Era berean, hala ere, bestelako aldarrikapenak egingo dituzte, «ez horren serioak, behar bada», hau da, «kalean askatasunez bizitzeko eskubidea, puzkarrak botatzeko eskubidea, ez depilatze eskubidea...».

Trianguloa plazako arkupean egin dute hitzordua, gaur 12:00etan, eta bertara emakume guztiak gonbidatzen dituzte. «Eredu bat aukeratu, baserritarak, sexu langileak, etxeokandreak, etorkinak, erizainak... hortaz jantzi, eta Asteartita elkarrekin pasatzeko gonbita luzatzen dugu», azaldu dute.

## Euskara eta kantua, ikur

Lizardikoek beste behin konpartsa aterako dute Asteartitan; Tolosa Zahartzari 2050-etaz mozturrotuko dira

I. Garcia

Lizardi elkarteok inauterietan konpartsa ateratzeko ohitura berreskuratu dute azken urteotan. «Lehen Astelentan ateratzen zen», ekarri du gogora Iñaki Azaldegik Lizardi elkarteok kideak, «baina gero bakoitza bere kontura hasi zen mozturrotzen». Orain lau urte, Asteartita egunak eta Agate Deuna bezperak bat egin zuten egutegian, eta horrek eragin zuen berriro ekimena. Lizardikoek koplak abesten ateratzeko ohitura dute eta Agate Deuna eta inauteriki bat egitea pentsatu zuten. «Bob Marley-taz edo rastaz eta artzai-andrez jantzi ginen, biak nahastuta mozturrotu berean,

eta koplak Marleyren doinuekin abestu genituen», dio Azaldegik.

Izan ere, Lizardi elkarteok oinarrietako bat beti egoten da antolatzen dituzten ekitaldietan: euskara. Abestea ere asko gustatzen zaie, eta biak uztartzea zer esanik ez. «Oso gustura ibili ginen urte hartan eta errepikatzea pentsatu genuen», esan du Azaldegik. Hala, hurrengo urtean San Ferminetaz mozturrotu ziren, eta hurrengoan, Txirritaren bertso batzuk oinarri hartuta, aspaldiko ezkontza bat irudikatu zuten.

Aurten ere animatu dira elkarteok. Nola ez, abestiak bere lekua izan behar zuten eta Tolosa Kantarikoak etorri zitzaizkien burura. «Inauterietan gaudenez, zerbaite ezberdina egin behar genuen, eta parodia moduko bat asmatu dugu. Tolosa Zahartzari 2050 deitu dioguna. Hau da, Tolosa Kantaria, baina hemendik 40 urtetara», esan du Azaldegik. Zahar itxura hartuko dute elkarteok, abestuz kaleak animatzeko as-



Lizardi elkarteok Txirrita bertsoaria eta aspaldiko ezkontza bat irudikatu zuteneko irudiak. HITZA



moz. Haur ugari ere ateratzen dira konpartsan eta horiek erizainez jantzita joango dira, *adinekoak* zaintzeko.

Azaldegik konpartsan ezauzgarriak nabarmendu ditu: «80 lagun biltzen gara eta hainbat be-launaldikoak. Hiru urtetatik hasi eta 78 urte dituen jende taldea elkartzea». Bestalde, beraien asmoa lasai ibiltzea da: «Gure txar-rangatxo ateratzen dugu, eta karrozak ibiltzen diren lekuetatik pixka bat aparte egoten gara. Aurten, eskusoinua izango dugu, abestiek in laguntzeko. Ez dugu azpiegitura handirik eramaten».

Hamar kanta abestuko dituzte, horietatik bost inauterietakoak. Euskara bultzatzeko bidean, *Baila Negra* abestia euskaraz abestuko dute. Inauterietakoak ez diren zenbait kanta ere abestuko dituzte, tartean, mozturrotarekin jokoa eginez, Lurdes Iriondoren *Gazte gara gazte* abestuko dute. *Goizean* kalean ibili ondoren, bazkaria elkartean bertan egingo dute. Nola ez, ezarriko oraindik abesteko gai diren frogatzeko aukera izango da. Jan, edan eta kantatu ondoren, zezen plazarako bide hartzen dute, txarangekin doan jende uholdearekin bat eginez. *Zezen* festak irauten duen bitar-

tean, Berazubi aldean izaten dira, hango tabernak bisitatzen eta kantuan jarraituz. «Azkenik, txar-rangak zezen plazatik ateratzen direnean, beraiekin egiten dugu kalejira eta horrela bukatu ohi dugu konpartsan jarduna», esan du Azaldegik.

Lizardi elkarteok, inauterietan ere, bere kidea den Pello Odriozola preso gogoan izaten dute. Odriozolak 24 urte bete zituen espetxean pasa den urtarri-laren 28an. «Pelloarekin egiten ari direna ez du izenik, eta konpartsaekin pankartaren bat ateratzen dugu bere askatasuna eskatuz», dio Azaldegik.





San Franzisko pasealekua, ohi betala, koloretz bete da Astelenita goizean. Atsedena taldekoak (ederrean) Lacasitos eta Conguitos goniatiaz mozerotzu dira. Txiribitu taldekoak (erdian) Jackson anaien txaura hartu dute eta Kazkabarra taldekoak Pirritx, Porrote eta Mari Motots pailazoan kantak dantzatu dituzte. A.MAZ

**Astier Imaz/Imanol Garcia**

# Astelenitako printza koloretzua

Tolosako inauterietako Astelenitan aisialdi taldeek jartzen diote koloretz jairari. Atzoan, koloretz gain, eguzkis ere eraman zuten San Franzisko pasealekura ehunka haurrek.

San Bernardo, Txentek, Txiribitu, Kirikiño, Kazkabarra eta Atsedena aisialdi taldeetako ki-deak gogotsu abera ziren kalera atzo goizean, dantza eta kantuen bidez, azken astetako lana munda guztiari erakustera. Emanaldi bakoitzaren inguruan jende ugari elkartu zen, eta txaloak banatzeko ez zuten aukerarik galdu.

Kirikiñok ospakizun berezia egin zuen atzoan, taldearen 25 urteurrena izaki. Orain arteko mozerroei omenaldia egin zien, Willi Fogen laguntzarekin mundu-bira emanaz. San Bernar-koak mexikarrez atera ziren, kaktus eta guzi. Txentek denboran atzera egitea erabaki zuen. Cro Magnon garaia gertutik ezagutzeko. Iharrak Txiribituk, Jackson anaiak izan zituen gogoari, eta Atsedena Lacasito goniatekin egin zuen dantza eta jolas. Kazkabarrak azkenik, Pirritx, Porrote eta Mari Motots ugari ekarri zituen. Alpatu behar da, Kazkabarrak euskarazko abestiak bakarrik erabili zituzela dantzatzeko.



Txentek taldekoak egin duten emanaldiaren une bat. A.MAZ



San Bernardo taldekoak Mexikoko dolinak ekarri dituzte Tolosara. A.MAZ



Kirikiñokoak, goiko eta beheko irudian, 25. urteurrena ospatu dute. A.MAZ

**Tolosan etxe adosotua saigal:**  
 eguzkitua, lau gela,  
 bi bainugelak,  
 komunak,  
 egongela-angela  
 handia, sukaldia,  
 bi duterentzako  
 jardina, boloka,  
 jardina eta  
 frastelakua.

**Iturburuak, S.A.**  
 678 237457  
 telefono zerbitzu.

**edukion**  
 Ondoko pasan inauteriak!!  
 www.edukion.com

**Joseba**  
 ileapaindegia  
 Nafarroa etorb. 12 • Tolosa  
 Tel.: 943 65 26 98

**GURU**  
**GTZE**  
**AUTOAK**  
 Tel.: 943 654 025  
 943 650 332  
 Faxa: 943 652 653  
 Santa Aldea  
 indutegiunea 2/g  
 20270 Anoeta

**Xirimiri**  
**Txokolategia**  
 Ondo pasan inauteriak!  
 "Caramelo" s. 10. l. 10.  
 201400 2. planta  
 Tel: 943 67 52 83



Talai dantzariak beren saioa egiten, atzo; ezkerrean, Zugastibarrena baserriaren ondoan, eta eskuinean, Berantetxeberria baserriaren aurrean. I.GARCIA

# Dantza, kafea eta anis pixka bat

Hotzari aurre eginez, Amezketako talai dantzariak beste behin bete dute baserriko baserri dantza eskaintzeko ohitura

**Imanol Garcia** Amezketak

Talai dantzaren ohiturarekin jarraitzen dute herriko gazteek. Atzo, herenegun bezala, baserriko baserri ibili ziren dantza eskainiz. Baserrikoek bere aldetik ere ematen zuten: gastuei aurre egiteko dirua, jatekoa, kafea eta, noski, anis pixka bat, hotzari aurre egiteko. Talai dantzariak goiza Zugastibarrena baserrian hasi zuten, Bedaiorako bidean. Ohitura ere horixe da: bertan gosaltzen dute; kafea, txokolatea eta tarta zituzten prest. Ondoren, dantza pare bat egin baserri aurrean eta ondokoan, eta bidetara ekin zioten.

Bigarren geldialdia Berantetxeberria baserrian egin zuten. Kafea, anisa ahaztu gabe, opilak, eta dantza pare bat eskaini zituzten, bat hasieran, eta bestea, joan

aurretik. Atzo Bedaio inguruko baserriak egin zituzten, behintzat izotzak utzi zizkienak, eta gero, herenegun egin ez zituzten San Martin auzokoak bisitatu zituzten. Igandean bi talde osatu baziren ere, hau da, hamasei lagun eta bi trikitilari, atzokoan zortzikotea eta trikitilaria aritu ziren goizpasa egiten. Bi emakume ere aritu dira dantzan aurten.

Dantzaren etorkizuna bermatuta dagoela dirudi. Izan ere, helduenek utzi diote dantza egiteari, atzetik gazte asko datozela ikusirik. Atzoko taldean, 17 eta 27 urte bitarteko dantzari eta trikitilariak ibili ziren hotzari aurre eginez, eta hurrengo urtean ere jarraitzeko asmoarekin. Kafea eta anisa ez zaie faltako, ezta bisitatzeko dituzten baserrietako berotasuna ere.



Goiko argazkian, talai dantzariak Berantetxeberria baserrikoekin; behekoan, Zugastibarrenan gosaltzen. I.GARCIA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



# Zezenak ere kalera irten dira

Inauterietako azken egunean, gaur, sokamuturra egongo da plaza Berrian 11:00etatik aurrera

## Asier Imaz

Tolosako inauterietan zezenek euren lekua izan ohi dute, bai zezen plazan eta baita kalean ere. Plaza Berrian sokari lotuta askatzen dituzte zezenak, Astelenitan eta Asteartitan.

Inauteri hauetako sokamuturraren lehen eguna, beraz, atzoko izan zen. Arco Iris txarangaren doinuek zabaldu zuten zezen jaia, eta hortik aurrera, errektortari lanetan aritu ziren plaza Berrian elkartu ziren korrikalariak.

Sokamuturra hasi aurretik, udaletxeko langileak plaza prestatzen ari zirela, udaltzainek lan dezente izan zuten. 16 urtetik be-

rako nerabeek ezin dute sokamuturrean parte hartu, eta udaltzainei erabaki hori betearaztea tokatu zitzaion. Nerabe itsurako guztiei adina galdetu zien lehenik, eta erantzutean hanka sartzen zuenari, plazatik hesiaren atzealdera pasatzeko gonbitea luzatu zieten.

Ordubete eskaseko saioan, hiru zezen txiki atera zituzten plazara. Adardunek ez zuten inor harrapatu, eta korrikalarien erorikorik egon ez zenez, sokamuturrean ez zen zauriturik egon. Kolpeak hartu zituzten bakarrak zezenak izan ziren, lurra irrista korra baitzegoen.

Bigarren zezenak, krisi ekono-

mikoaren aurrean zerbait egin nahi izan zuen, izan ere, plaza Berrian dagoen banketxe baten kristala ez zuen ikusi eta itsu-itsuan jo zuen adarrekin. Agian sosak izango zituen barnean, edo agian, dezenteko lapurreta egin nahiko zuen.

Ikusleen eta partaideen alde-tik, plaza Berriko zirrikitu guztiak zezen zalez bete ziren. Adardunen aurrean ez ziren korrikalari asko ibili, baina 30-40 lagun horiek ederki gozatu zuten. Agian, laburregi eta guzti egin zitzaion atzoko saioa.

## Bigarren eta azken aukera

Sokamuturra gustuko dutenek, kalean zezenak ikusteko bigarren aukera gaur izango dute. Korrika ibili zirenek eta ibili nahi dutenek, gaurkoa aprobetxatu beharko dute, sokatira eta inauteriak gaur amaitzen baitira.



Sokamuturrean korrika ibili ziren gazteek errektortari lanak egin zituzten, maila polita erakutsiz. Zezen ikuskizuna alaituz, plaza Berrian, Arco Iris txarangako musikariak egon ziren. A. IMAZ

**Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**





GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	OSKARBI
BEROENA	9°
HOTZENA	1°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Garraio publikoa**

**RENFE**

■ Ohiko ordutegia izango du.

**TSST**

■ **Eguneroko zerbitzua.**  
**Zuzenekoak DONOSTIA-TOLOSA norabidean:**  
07:45 (Amaratik aterako da),  
09:00 (Amaratik aterako da),  
13:10, 14:30 (Zubieta kalea),  
18:30 eta 19:50.  
■ **Eguneroko zerbitzua.**  
**Zuzenak**  
**TOLOSA-DONOSTIA norabidean:**  
07:10, 08:20, 09:30, 13:55,  
15:00 eta 19:10.

**TOLOSALDEA BUS**

■ **00:00-02:00-03:30.**  
TOLOSA (Zumardi Txiki)-  
Amarotz-Ikaztegieta-  
Alegia-Amezketeta-  
TOLOSA.  
■ **01:00-02:45-04:15.**  
TOLOSA (Zumardi Txiki)-  
Amarotz-Ibarra-Berrobi-  
Eldua-Elduain-BERASTEGI.

**HIRIBUSA**

■ **07:30etik**  
**10:00etara.**

Ibilbidea: SANTA KLARA-  
Foru etorbidea-Geltoki-lurre-  
lurreamendi-Usabal-  
industrialdea-Amarotz-  
San Blas- Iparragirre-  
Zabalarreta-Kondeko  
aldapa-Klinika-  
SANTA KLARA.  
■ **10:30etik 14:30era**  
**eta 16:00etatik**  
**22:00etara.**  
Ibilbidea:  
ZUBI BERRIA-Usabal-  
industrialdea-Amarotz  
(beheran)-Kondeko  
aldapa-ZUBI BERRIA.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** L. Lejeune,  
Euskal Herria, 46.  
Telefonoa:  
943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Plaza, M. T.  
Elbarren, 36.  
Telefonoa:  
112.

HITZAK ez du bere gain  
hartzten egunkarian adierazita-  
ko esanien eta iritzien  
erantzukizunik.

**Gora eta behera**



**KIRIKIÑO KO MUNDUARI BIRA**

Kirikiño aisialdi taldeak 25 urte betetzen ditu aurten, eta hori dela eta atzoko konpartsa berezia izan zen. Willi Fog izan da aukeratu duten pertsonaia, baina atzoko eguna Kirikiño ko munduari bira emateko ere aprobetxatu zuten, eta armairutik azken urteetako inauterietako mozorroak atera zituzten. A.I

**Agenda**

**INAUTERIAK**

**TOLOSA**  
■ **06:00.** Udal Txistulari Bاندak Alborada joko du udaletxe-ko arkupetan, Berdura plazan eta Felipe Gorriti plazan.  
■ **08:00.** Pattar zezena zezen plazan.  
Ondoren kalejira.  
■ **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Kabi Alai txarangak alaituta.  
■ **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.  
■ **15:45.** Herriko txistulari bاندak, ohiturazko ibilbidea eginez, Ildiarena pieza joko du.  
■ **16:00.** Kalejira Kabilia, Urdiña Txiki eta San Esteban txarangekin, plaza Zaharretik zezen plazara.  
■ **16:30.** Zezenak zezen plazan; txarangak eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.  
■ **19:00.** Dantzaldia Berdura plazan Kabilia, Urdiña Txiki eta San Esteban txarangen lagun-tzarekin.  
■ **23:30.** Incansables Zaharrak eta Jainekin txarangen irteera izango da.  
■ **23:30.** Sardinen Hileta konpartsen irteera Gure Txokoa elkartetik.



**harpidedun izateak badu saria**

**zozketa**

**1 Zabala Sagardotegia**

Bi lagunentzako sagardotegi menua

Garagartza baserria  
Aduna  
Tel.: 943-69 07 74  
www.rzabala.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **5.1**

**2 Sarasola Sagardotegia**

Bi lagunentzako bazkaria



Asteasu • Tel.: 943-69 02 83



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **5.2**

**3 Isastegi Sagardotegia**

Bi lagunentzako sagardotegi menua

Aldaba Txiki, 15 • Tolosa  
Tel.: 943-65 29 64  
www.isastegi.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **5.3**

**4 Donostiako Aquariuma**

Bi lagunentzako bina sarrera



www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **5.4**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kidea, izena, herria, eta zeineskaitzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostrialdean argitaratuko ditugu.